

Salvat Léon
Hazparne, Lapurdi (1871)

Aurkibidea

Biografia

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. 42 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Zapataria zen. Ama Hazparnen jaioa zen, aita aldiz Bardozen. Euskalkia: mendebaldeko behe-nafarrera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.184

Zintak

HAZ-004

- **Proiektua:** Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Data:** 1913-07-25
- **Iraupena:** 2 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Emalea:** OAW

Pasarteak

1. Hazparneko krimena

- Erref:** HAZ-004/001
- Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>Leon Gilento zaldi-tratularia erailtzen saiatu zireneko istorioa kontatzen du.</p>

Transkripzioa

Huna Azparnen gerthatu den krima. Kabiiko kartierrian, astearte goizian, bedeatzi oonak irian. Leon Gilento makiñuna asasinatüa izan da, bee ganberan, Bastidako merkaturat juaiteko prestatzen ai zelaik. Ez du haatik hil, bainan du azkarki kolpatu, eta diotenaz irrisku haundian. Kolpatzailia Labiiko kartierekua da, Bruiteneko Erlandeen semia, hoita zazpi urthetako muthiko gazte bat Ameriketaik egun hotan arribatua eta oono bee etxen sartzekua, diila hamar bat urthe Ameriketaat juana. Leonekin konpeiniatua zen Baionan juan den ortzeunian beste zonbeit makinunekin, Leon Gilento delakua jaun misionest Belzunz aphez zenaren anea da. Eta berroita hamoost urthe ditu: bakharrik bizi zen aspaldian Gilentoonian pensonia kanpuan hartzen zin. Astearte goizian bedeatzi oonak irian atheatu da auzoat zeiten hartzeat; batzuek erran dute Piarres Ximunen etxeat, bertze batzüek aotzian izan zela baso'at arnoon edaten eta taakuaan eosten, erranez naski Bastidako merkaturat juaan zela...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com